



Bir-Ziklatu Proiektua

Bizikletak berreskuratu eta berriz erabiltzeko

PROIEKTUAREN DESKRIBAPENA

HELBURU NAGUSIA

Bir-Ziklatu proiektuaren bitartez, Gipuzkoan sistema publiko-sozial bat ezarri nahi da, non bertan behera utzi edo erabiltzen ez diren bizikletak berreskuratu, berrerabili eta balioetsi nahi diren.

BIZIKLETEN EGOERA GIPUZKOAN

Gaur egun, milaka eta milaka bizikletak beren bizitza erabilgarria kaleetan amaitzen dute, edo udal-biltegietan edo hondakinak tratatzeko zentroetan pilaturik. Bizikleta horien ehuneko handi bat herritarrei zerbitzua ematen jarraitzeko egoeran dago, hartara hondakinak murriztuz, kontsumo-eredu alternatibo bat sortuz eta justizia sozialaren aldeko apustua eginez. Horretarako, prozesu osoa kudeatuko duen antolaketa-egitura bat behar da, gizarte-oinarri sendoa duena.

Gipuzkoako Foru Aldundiak, Gurpilartea Elkartearen laguntzarekin, egitura hori sortu eta sendotzeko behar den laguntza eskaini nahi du..



PROIEKTUAREN OINARRIAK



LANKIDETZA-TAILERRAK

Irabazi-asmorik gabeko tailerrak sortzen laguntzea eta sustatzea.



HITZARMEN INSTITUZIONALAK

Mankomunitateekin eta udalekin abandonatuak izan diren edo erabiltzen ez diren bizikletak berreskuratzeko hitzarmenak bultzatzea.



TAILERREN SAREA

Lankidetza-tailerren sarea sustatu eta eratzea, ekintza-esparru adostu eta koordinatu batean jarduteko.



LABEL KOMUNA

Kalitate-label bat ezartzea, hartara ziurtatzeko gizarte-ekimeneko erakundeek, ingurumen- eta gizarte-baldintzak betez, bizikletak berreskuratu eta konpondu dituztela

Lankidetza-tailerrak

Definizioa

Irabazi asmorik gabeko tailerrak dira, boluntarioek antolatuak, bizikletak berreskuratu eta konpontzeko.

Helburuak

- Bertan behera utzitako edo erabiltzen ez diren bizikletak berreskuratzea eta konpontzea.
- Norberaren bizikleta konpontzeko guneak sortzea.
- Bizikleta garraiobide gisa erabil dadin bultzatzea.
- Elkarlaneko ikaskuntza, autonomia pertsonala eta gizarte-kohesioa sustatzea.
- Berrerabilpena, birziklapena eta ingurumenarekiko errespetua bultzatzea.



Tailerren antolaketa

Tailerrak horizontalki antolatzen dira, hau da, erabakiak eta erantzukizunak demokratikoki eta adostasunez hartzen eta gauzatzen dira.

Tailerren barruan bi jarduera nagusi daude: abandonatutako edo erabiltzen ez diren bizikletak berreskuratzeko eta konpontzeko talde-lana, eta norberaren bizikletak konpontzeko banakako lana.

Tailerrak bizikletak konpontzeko tresna espezifikoak eta ohiko brikolaje-tresnak izango ditu. Halaber, bizikletak konpontzeko eta proposatzen diren gainerako jarduerak egiteko, espazio egokiak eta seguruak eskainiko ditu. Bazkideek bakarrik erabili ahal izango dituzte tailerreko instalazio eta zerbitzuak.

Egiten diren jarduera guztietan, norbanakoen eta taldeen eskubideak errespetatuko dira, elkarrekiko errespetua eta aukera-berdintasunerako gunea izanik.



Berreskuratutako bizikleten eta piezen erabilera

Ordezko piezak

Berreskuratutako bizikleta eta piezak hautatu, sailkatu eta biltegirotatu dira, ondoren konponketetan erabiltzeko. Baztertutako zati eta piezak ingurumen-araudiaren arabera sailkatu eta botako dira.

Elkartearen jardueretarako erabilera

Berreskuratutako bizikletak flota propio bat sortzeko erabili ahal izango dira, hainbat funtziotara bideratuko dena: ikastaroak, bizikleten mailegua, mendiko bizikleten mailegua, bidaiak, etab.

Dohaintza, trukea eta salmenta

Gainerako bizikletak hirugarren pertsonari bideratzeko aukera dago. Batez ere dohaintza eta trukea bultzatuko dira. Bizikletak eta piezak saldu ahal izango dira, betiere tailerraren antolaketa-oinarrietan ezarritako prezioak errespetatuz.

LANKIDETZA-TAILERREN SAREA

GIPUZKOAKO LURRALDE HISTORIKOA

Tailerrak martxan jarri ondoren, Gipuzkoan sare bat sortzea sustatu nahi da, ekintza-esparru adostu eta koordinatu bat izanik. Bertan, lankidetzatailerrez gain, sektore berean jarduten duten beste erakunde batzuek ere parte hartuko dute. Sare horretan parte hartzeak jarduteko protokolo bat onartzea ekarriko luke.



www.kutxabank.com/151025220



HITZARMEN INSTITUZIONALAK

MANKOMUNITATE ETA UDALETXEAK

Abandonatuta dauden edo erabiltzen ez diren bizikletak berreskuratzeko, hitzarmenak sinatu nahi dira hondakinen tratamenduaz arduratzen diren mankomunitate eta udalekin.

HITZARMENEN FUNTSEZKO ALDERDIAK

Hondakinen eta bizikleten arteko bereizketa egitea.

Hitzarmen horiek idaztean, funtsezkotzat jotzen da erakunde publiko horiek konpromisoa hartzea, zehaztu beharreko epe batetik aurrera, bizikleten eta haien osagaien tratamendu berezituaren ezarpena hondakin solidoen kudeaketa-prozesuetan integratzeko.

Bizikletak hirugarrenei ematea

.Garrantzitsua izango da interesa erakusten duten irabazi-asmorik gabeko gizarte-erakundeei baimena ematea bizikletak eta horien osagaiak doan erabiltzeko. Era berean, erakunde horiek beren gain hartuko dute bizikletak, berreskuratze lanak egiteko, beste instalazio batzuetara lekualdatzeko ardura.

Jarraipena eta ebaluazioa

Ezinbestekoa da hitzarmenen jarraipena eta ebaluazioa egiteko sistemak ezartzea, betetzen direla bermatzeko, betetze maila baloratzeko eta etorkizunean egin beharreko doikuntzak egiteko.

LABEL KOMUNA

Berreskuratutako bizikleta guztietarako kalitate-label komun bat ezartzea aurreikusten da. Horren bidez, Gipuzkoako Foru Aldundiak ziurtatuko luke gizarte-ekimeneko erakundeek konpondu dituztela, eta aldi berean, gizarte-eta ingurumen-baldintza jakin batzuk betetzen dituztela. Horrek, gainera, lagunduko luke Bir-Ziklatu proiektuak ikuspen handiagoa lortzen, emaitzen balioa nabarmenduz.





PROIEKTUAREN ERAGINA

Gipuzkoan, gaur egun, tailer bakarra dago martxan, Gurpilartea Elkartek kudeatzen duena, Oarsoaldeako eskualdean dago, eta urtero San Marko Mankomunitatetik eta Errenteriako Udaleko Ibilgailuen Udal Gordailutik datozen ehun bizikleta birziklatu, konpondu eta berrerabiltzen dituzte batez beste.

Kalkuluen arabera, Gipuzkoa osoan, eskualde bakoitzean tailer bat sortuz gero, urtean gutxienez 800 bizikleta eta horien osagaiak berreskuratu eta berrerabili ahal izango lirateke. Horrela, hondakin kopuru handi bat murrizteaz gain, gero eta bizikleta gehiago konpondu ahal izango lirateke, berreskuratutako piezak eta osagaiak berriz erabiliko liratekeenez gero, haien bizitza erabilgarria luzatuz eta hondakin gehiago sortzea saihestuz.

**Gipuzkoako
Foru Aldundia**
Mugikortasuneko eta Lurralde
Antolaketako Departamentua



**ETORKIZUNA
ORAIN**

